



## **AKTA**

Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko uztailaren 12an buruturiko ohiko saioari dagokiona.

Zestoako Udaletxean, bi mila eta hemezortziko martxoaren hogeita bian, Jose Francisco Mendizabal Irigoien Alkate jauna mahaiburu delarik, Gorka Unanue Zabala eta Mikel Arregi Urrutia korporakideak bildu dira.

Ondorengo akordioak hartu dira:

1.- Bere osotasunean onartzen da Gobernu Batzordeak 2018ko ekainaren 5ean buruturiko saioari dagokion akta.

2.- "Agote" AG.I.1. Areako Kontzertazio Juntak sustatutako Zestoako Planeamenduko Arau Subsidiarioen "Agote" AG.I.1- Egikaritza Unitateari dagokion Birpartzelazio Proiektua behin betikoz onartzea, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

3.- U.U.A., Irao baserria eta Sastarrain Baserri Eskolaren Normen Aldaketa dela eta, bigarren txosten gehigarria aurkezten du. Erabaki da ontzat ematea aurkeztutako dokumentazioa.

4.- E.I.I., Akoako Z. baserrian bigarren etxebizitza egokitzeari buruzko kontsulta urbanistikoa egiten du. Erabaki da jakinaraztea arauen arabera baimengarria dela bigarren etxebizitza egitea, lerrokadura errespetatuz. Bestalde, udal baimena lortu ahal izateko oinarrizko proiektua aurkeztu beharko du udalean.

5.- C.y R.US.L., Gurutzeaga kalea 3 eraikineko fatxada konpontzeko andamioa, karga-jasogailua eta kontainerrak jartzeko udal baimena eman zitzaion 2018ko ekainaren 22an 95 zk. duen ebazpen bidez. Ebazpenarekin batera, lurraren okupazioari dagokion tasa igorri zuen Udalak. Orain, enpresa honek Gurutzeaga kalea 3ko fatxadako obren lur okupazio tasen berrikuspena eskatzen du. Erabaki da jakinaraztea berriz berraztertu dela eta irizpide hau erabiltzea erabaki da, hau da, fatxadak konpontzeko jartzen diren andamioen azpitik oinezkoen pasabidea bermatzen bada, ez da okupazio tasa ordainduaraziko. Aparkaleku hauen lur okupazio tasa ordaindu egin beharko du enpresak.

6.- A.U.I., Lasaoko G. baserrian bi etxebizitza egokitzeari buruzko kontsulta urbanistikoa egiten du. Erabaki da jakinaraztea arauen arabera baimengarria dela bi etxebizitza egitea, lerrokadura errespetatuz eta udal baimena lortu ahal izateko oinarrizko proiektua aurkeztu beharko dela udalean.

7.- J.L.E.Ari., Mardubideako L. etxearen inguruan eta betelaneko sarreran asfaltoa botatzeko baimena baimena ematea, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

8.- J.A.I., Aizarnako E, baserrian, gaur egun biltegi modura erabiltzen den zatian, etorkizunean etxebizitza egokitzeari buruzko kontsulta urbanistikoa egiten du. Horrekin batera, teilatuan, beirazko lehiatea irekitzeko baimena eskatzen du. Erabaki da jakinaraztea arauen arabera baimengarria dela baserrian etxebizitza egokitzea, lerrokadura errespetatuz. Hala ere, udal baimena lortu ahal izateko oinarrizko



## ZESTOAKO UDALA

proiektua aurkeztu beharko da udalean. Bestalde teilatuan beirazko lehiatea irekitzeko oniritzia ematea onartzen da.

9.- I.A.S., Arroagoiko E. baserriaren lurretan, ikuilu berria eraikitzeari buruzko kontsulta urbanistikoa egiten du. Erabaki da jakinaraztea dimentsio hauetako ikuilua egiteko, nekazari jarduera bati loturik egon behar duela eraikinak, beste zenbait baldintza ere bete beharko ditu.

10.- E.J., EAEko Administrazioaren eta Zestoako Udalaren arteko lankidetzahitzarmena aurkezten du, informazioaren, administrazioaren eta kudeaketa elektronikoaren esparruko zerbitzuak elkarri emateko. Erabaki da hurrengo Ogasun Batzordean aztertzea gaia.

11.- U.U.A., Z.D.S.L.k, hondakin-uren isurketa baimena eskatu duela eta, ebazpenaren kopia aurkezten du. Erabaki da berri ematea.

12.- U.U.A., Arroabeian eta GI-631 errepidearen arteko elkargurutzean biribilgune bat egiteko lanak Larrondo errekararen aurretiko estalduraren gainean, ebazpenaren kopia aurkezten du. Erabaki da berri ematea.

13.- U.U.A., Larrondo ibaiaren ezker ertzeko zaintza eremuan, industria-nabe baten estalkia altxatzeko baimena dela eta, ebazpenaren kopia aurkezten du. Erabaki da berri ematea.

14.- J.L.E.A., Arroa Beheko Artzubia aldea ibardiaren berreskurapen eta hobetze lanen inguruko kamioi erregistroa aurkezten du, 2018ko maiatzeko eta ekaineko hilabetei dagokiona. Erabaki da jaso izanaren adierazpena egitea.

15.- A.E.P., Arroabeko L. tabernaren titularitate aldaketa eskaera aurkezten du. Erabaki da jakinaraztea aldaketa egin aurretik, ondorengo hainbat dokumentazio aurkeztu beharko duela udaletxean.

16.- A.E.P., Arroabeko L. tabernaren kanpoaldean bi mahai haundi eta lau txiki jartzeko udal baimena ematea, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

17.- J.U.G., Uztapide plaza 2 3B etxebizitzan iturgintza lanak egiteko obretako udal baimena eskatzen du. Erabaki da jakinaraztea ez dela obretako udal baimenik ematen, eskaera bi etxebizitzetan lanak egiteko delako, eta ez dagoelako honetarako udal baimenak.

18.- I.I.A., Lasao auzoko E. baserria eraberritzeko eskaera egiten du. Erabaki da jakinaraztea hurrengo Hirigintza Batzordean aztertuko dela gaia.

19.- Zestoako Udalak, L.L.-en neurri zuzentzaileak eskatzeko erabakia. Erabaki da aurreko tramitazio guztia zuzen eraman denez, neurri zuzentzaileak eskatuko dira.

20.- G.F.A.E.S., L.I. eta L.O.D., Zestoako Urkizu ustialekuaren sailetan behi-aziendarentzako ukuilu txikia eraiki nahi dutela eta, Zestoako Udalak eginiko eskaeraren erantzuna igortzen dute. Erabaki da berri ematea.

21.- Zestoako Udalak, EITeak aurkezteko epea ekainaren 27an bukatu ondoren, datuen



azalpena egiten du. Ondoren, erabaki du:

a) EITea aurkeztu ez duten eta egoera txarrean dauden etxebizitzetara udaletik errekerimentua bidaltzea txostena egiteko, gehienezko 2 hilabeteko epea ezarriz. ( 241/2012 Dekretuko 6.4. artikulua).

b) EITa egin eta 2. mailako eskuhartzea duten etxebizitzetara udaletik, neurri zuzentzaileak hartzeko gehinez 3 hilabetetako epea dutela adieraziz. ( 241/2012 Dekretuko 17 . artikulua).

22.- A.M.E.B., S. baserriaren parean abiadura jeisteko salto bat dagoela adierazten du. Saltoak ez diela onik egiten, eta berau kentzeko eskaera egiten du. Erabaki da jakinaraztea ez dela egokia ikusten saltoa kentzea, segurtasuna bermatzeko beharrezkoa delako jarri zen eta.

23.- A.S.G.E., Aizarnako errepidean eta plaza inguruan ibilgailuek sortzen duten arriskuaren inguruko idatzia aurkezten du, Udalak neurriak har ditzala eskatuz. Erabaki da hurrengo Hirigintza Batzordean aztertuko da gaia.

24.- G.J.E., Idiazpi auzunea 4ko atzealdean dagoen arranja hobetzeko eskaera egiten du. Zehazki, eskaileraren bukaeran egiten duen beheko aldapa ekidin eta zuzenean bide nagusiarekin elkartzen den tokiraino eramatea; orain dagoen bezala, baden handiegia sortzen omen zaie. Erabaki da jakinaraztea teknikoki ez dela egokia ikusten beheko aldapa ekidin eta zuzenean bide nagusiarekin elkartzea, honek errepidean murete bat egitea eskatuko lukeelako.

25.- L.I. K.E., Herri Etxearen atzekaldean "parrilla" dutela, baina euria egiten duenean ezin dutela erabili diote. Horrela, estalpe bat egiteko udal baimena eskatzen dute, parrilla erabiltzeko eta trasteak gordetzeko. Estalpearen gastuak eta eraikuntza Elkartearen gain izango lirake. Erabaki da jakinaraztea estalpe hori egin ahal izateko, ondoko partzelako jabearen baimena lortu beharko dela, ondoko mugetara dauden distantziak direla eta.

26.- J.A.A., Gesalaga kalea 5ean, lehen A.kafetegia zen kanpoaldean mahai altu bat jartzeko udal baimena eskatzen du. Erabaki da mahaiak jartzeko baimenik ez ematea, espaloiko gutxieneko pasabidea ez delako bermatzen.

27.- J.A.A., Gesalaga kalea 5ean, lehen A. kafetegia zen kanpoaldean terraza jartzeko (lehengo baldintza berdinetan) udal baimena eskatu zuen eta ekainean udalak ezezekoa eman zion. Jendeak ikustean ez dagoela terrazarik ez omen da sartzen eta lanean asko ari omen da nabaritzen. Orain, berriro eskaera bera egiten du, terraza irailerarte edukitzeko. Erabaki da jakinaraztea kafetegiaren kanpoaldean terraza jartzea baimentzen dela, baina Alonderoko Aldapako igogailuko lanak amaitu ondoren. Aipaturiko obrak amaitzen direnean, aparkaleku berriak egokituko dira herrian, eta ordutik aurrea baimenduko da 2 aparkaleku okupatzen dituen terraza.

28.- C.M.O.A.ri, E. baserriko teilatua berritzeko obretako udal baimena ematea, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.

29.- E.S.Coop.ri, Sansinenean duten pabiloiko ekialdean dituzten kamara frigorifikoak kendu eta gune hori dendetako altzairu eta ekipoen ordezkotako piezen biltegi bezala



egokitzeko obretako udal baimena ematea, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.

30.- E.S.A.ri, Agote industrialdean pon sarea hedatzeko obretako udal baimena baimena ematea, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.

31.- S.I.6ko J.ri, San Isidro kalea 6 eraikineko fatxada saneatzeko eta margotzeko obretako udal baimena ematea, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.

32.- E.S.A.ri, Agote industrialdean pon sarea hedatzeko obretako udal baimena baimena ematea, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

33.- A.M.I., .bizikletak garbitzeko mangera bat eskatzen du Arroabeen. Erabaki da hurrengo Hirigintza Batzordean aztertzea gaia.

34.- E.I.Z., Iraetako haurren parkean zegoen ping-pong mahaia berriro jartzea eskatzen du. Erabaki da jakinaraztea lehen Iraetako parkean jarririk zegoen ping-pong mahaia kendu egin behar izan zuela Udalak, egitura guztiz herdoildua zuelako. Bestalde, Udalak ping-pong mahai ezberdinen aurrekontuak eskatuko ditu berriro mahaia jartzeko asmoz, beti ere egitura herdoilgaitza dutela kontuan hartuz.

35.- Zestoako Udalak jakin du masaje zerbitzua duzula martxan G.J.T.n. Erabaki da jakinaraztea zerbitzua eman ahal izateko baimenik ez duela eskatu udal honetan eta Udalak masaje zerbitzua kontratatua duela, lehiaketa bidez. Beraz, ez dagokio bigarren zerbitzu bat. Ondorioz, zerbitzua bertan behera utzi beharko du.

36.- A.A.I.ri, basoak zaintzeko onarturiko diru-laguntza baten arabera, bere terrenoetan itxiturak jartzeko udal baimena ematea, akordioan zehazturiko baldintzen arabera.

37.- X.I.A., Zumaiako udalerrian dagoen N-634 errepideko biribilgunean Bedua auzoko kartela jartzeko eskaera egiten du. Erabaki da jakinaraztea errepidean kartelak jartzea ez dela Udalaren eskumena, Gipuzkoako Foru Aldundiarena baizik. Beraz, udal honek Gipuzkoako Foru Aldundira igorriko du eskaera.

38.- A.A., udaleko kale garbitzailea Arroagoiko San Joan kalera inoiz ez dela joaten dio. Erabaki da jakinaraztea kale-garbiketa zerbitzuaren asteko antolaketan aurreikusita dagoela astero San Joan kalea garbitzea. Kale-garbiketa zerbitzuari kexa honen berri emango zaio eta garbiketa egiten dela bermatuko da.

39.- A.8ko J.E., 2018ko otsailaren 6an Arteaga auzunea 8an irisgarritasuna hobetzeko igogailua jartzeko obretako baimena eman zion Udal honek. Hondakinak behar bezala kudeatuko zirela bermatzeko fidantza ordaindu zuen Jabego Elkarteak. Orain, beharrezkoa den dokumentazioa aurkezten dute eta fidantzaren itzulketa eskatzen da. Erabaki da fidantza itzultzea.

40.- Z.M.E., Gurutzeaga kalea 3 behean dagoen U. dendari Zestoako Udalak bidalitako zarataren inguruko jakinarazpenari buruzko idatzia aurkezten du. Udalari eskatzen dio, alde batetik, dagokion batzordean gai hau lantzea; eta bestaldetik, Zestoako Udala eta Z.M.elkartearen artean gai hau lantzeko bilera deialdi bat egitea Udalak. Erabaki da jakinaraztea bizilagunen idatzizko kexa formal bat jasotzen den momentutik, jarduera horretan zaraten legea bermatzen dela egiaztatu behar duela udalak. Kasu honetan teknikari gaitu batek izenpeturiko ziurtagiriaz gain, beharrezkoa ikusten da enpresa



## ZESTOAKO UDALA

espezializatu batek eginiko neurketa homologatua egitea. Bestalde, neurketa egin eta zaraten legea betetzen dela egiaztatuz gero, jardueraren titularrak neurketaren gastua ordaintzea ez da egokia ikusten. Beraz, Zestoako Udalak eskatuko dio enpresa homologatuari neurketa egiteko. Eginiko neurketak zarataren legea ez dela betetzen adierazten badu, jardueraren titularrak ordaindu beharko du neurketaren gastua, ondorengo egokitzapen lanak, eta amaierako neurketa. Aldiz, eginiko neurketak legea betetzen dela egiaztatzen badu, salatzaileari neurketa horren gastua egotziko zaio.

41.- Zestoako Udalak, Arroabeko eskola berriaren inguruko urbanizazio lanak egiteko plegu administratiboak aurkezten ditu. Erabaki da ontzat ematea aurkezturiko pleguak.

42.- Zestoako Udalak, 2018 urtean baserribideen konponketarako aurrekontuak aurkezten ditu. Erabaki da lanak E.L.S.L. enpresari esleitzea.

43.- Zestoako Udalak, Gurutzeaga kalea autobus geltoki zaharrean egin beharreko berrikuntza lanen aurrekontua aurkezten du. Erabaki da lanak C.y R.U.S.L. enpresari esleitzea.

44.- B.S.L., Sansinenea industrialdean duen nabean biltegitzeko apalak jartzeari buruzko kontsulta egiten du. Erabaki da jakinaraztea adierazitakoa baimengarria dela.

45.- R.N.S.A., kiroldegiko obren 5. eta 6. zertifikazioak aurkezten ditu. Erabaki da ontzat ematea.

46.- F.R.S., informazioa eskatu du plazan muntatzen diren graden beharrezko aldaketen egoerari buruz. Erabaki da jakinaraztea ez dela posible izan Foru Plaza Zaren aurrean muntatzen diren gradetan aldaketak egitea. Segurtasun arrazoiengatik lehentasuna eman zaiolako plazako ipar aldeko barrera eta musika bandaren plataforma ordezkatzeko lanei. Bestalde, eraginak murrizteko, Foru Plaza Zaren aurrean muntatzen diren gradak ez dira muntatuko, eta barrerak azken unean muntatuko dira, irailaren zazpian (ostirala), eta lehenengo desmuntatuko dira, irailaren hamarrean (astelehena).

47.- A.T.T.S.L., jarduera legeztatzeko proiektua aurkezten du. Erabaki da jarduera legeztatzeko tramitazioarekin hastea.

48.- I.U.B.ri, L. baserriko bizigarritasun ziurtagiria ematea.

49.- M.T.A.Ari., Arroagoiko A. etxeke teilatua berritzeko obretako udal baimena ematea, akordioan ezarritako baldintzen arabera.

50.- J.O.U., A. erretegiaren ondoan dagoen txabola, egurra gordetzeko asmoz, handitzeko obretako udal baimena eskatzen du. Erabaki da udal arkitektoa berarekin harremanetan jartzea.

51.- J.U.A.ri, Karmengo Amaren errepidea 12 etxeke teilatua berritzeko obretako udal baimena ematea, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.

52.- K.I.ri, 2017ko abenduaren 1ean tximistak elizako kanpandorra eraitsi zuela eta, "kupula" eraberritzeko obretako udal baimena ematea, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.



53.- H.S.L., jardueraren obra amaiera ziurtagiria eta obra berriaren ziurtagiriaren borradorea aurkezten ditu. Erabaki da ontzat ematea aurkeztutako dokumentazioa eta jarduera baimenaren tramitazioa amaitu dela jakinaraztea.

54.- N.F.S., maiatzaren 9an Bengoetxebidetik oinez zihoala solte zeuden hiru txakurrek eraso egin ziotela eta buelta eman behar izan zuela dio, txakur-jaberik edo arduradunik ez zegoelako. Arazo honi irtenbide bat ematea eskatzen du, bertatik pasatzen direnen lasaitasunerako. Erabaki da txakur jabeak jakinaraztea Udalean gertatutakoaren berri izan dugula eta txakurrak kontrolpean edukitzeko neurriak hartzeko eskatzea. Bestalde, jabeak txakurren Osasun Kartillen kopiak udaletxean aurkeztu beharko ditu animaliek albatari zaintzak jaso dituzten egiaztatzeko.

55.- G.A.G., Zestoako ibai, erreka eta udideen ingurumenarekiko egoera tamalgarria kontutan izanik eta etorkizunari begira, egoera honi buelta emateko, udaletxeko teknikariei igorritako ekarpen eta eskariak Zestoako Udalak bere gain hartu ditzan eskatzen du. Dokumentu gehigarriak eta argazki bilduma atxikitzen ditu. Erabaki da jakinaraztea udalaren egunerokoan eta urteko ekintzetan kontuan hartuko direla proposatutakoak; Udala jakitun da ingurumen arazo larria dugula herrian eta saiatu da, baliabideen arabera, problematikari aurre egiteko urratsak ematen; jakinarazi proposatutako hainbat garbiketa egin dituela Udal brigadak (Lau Iturrietan, Iraetabidean...), bere lan-zerrendan lan horiek sartuta jarraitzen dutela eta berri eman herriko taldeek antolatutako modu honetako ekintzetan laguntza eman duela Udalak, eta emateko prest dagoela (ibai garbiketa...).

56.- U.U., Agoteko E.a pasa ondoren, norbaitek zakarra bota duela dio; obrako hondakinak eta kotxeko piezak. Gainera, G.A. bordako putzu ondoan, zaborra botatzen jarraitzen dutela jakinarazten du. Udalak jarritako zaborra ez botatzeko seinale berria jartzea eskatzen du eta ekainerako bide bazterrak garbitzeko zerrendan boradara doan bidea sartzea. Erabaki da jakinaraztea udalak jarritako kartela oraindik ikusteko moduan dagoela. Hortaz, epe laburrean ez aldatzea erabakia da. Bestalde, G.A.ra doan bide ertzen garbiketa, berriz, desbrozadorearekin garbitu beharreko bideen zerrendan sartuta dagoela jakinarazten da.

57.- Pisu turistikoari buruzko ahozko kontsulta: Udalak ahozko kontsulta bat jaso du, etxebizitza bat pisu turistiko bezala alokatzeari buruzkoa. Inguruko herrietan kontsulta egin ondoren, Zarauzko Udalaren irizpide bera ibiltzea erabaki da.

### **Batzorde informatiboen bileren akten onarpena**

2018ko ekainaren 19an, Auzoak eta Baserriak Batzordeak eginiko bileraren akta onartzea.

2018ko ekainaren 13an, Ingurumen Batzordeak eginiko bileraren akta onartzea.

2018ko uztailaren 5ean, Gizarte Ongizate Batzordeak eginiko bileraren akta onartzea.

2018ko uztailaren 7an, Kultura eta Euskara Batzordeak eginiko bileraren akta onartzea.



**Alkatetza ebazpenak**- Honako Ebazpenen berri eman da:

- \* 85 zk, O.U.ri, Zestoako Baratze Parkeko 13. zenbakidun ortua erabiltzeko lizentzia ematen zaio.
- \* 86 zk, C.F.S.A. enpresari, udal jabetzako baso pista eta bideen erabilera berezia egiteko lizentzia ematen zaio.
- \* 87 zk, Aizarnako A. baserri berreraikitze obra amaiera dokumentazioa ontzat ematen da.
- \* 88 zk, J.M.O. Unanue bitarteko funtzionario izendatuz, brigadako peoi lanpostuan aritzeko abenduaren 31 arte.
- \* 89 zk, Berokuntzaen berokuntza instalazioen mantenua (Kontratazio Zentrala)
- \* 90 zk, A. kafetegiaren titularitate aldaketa ontzat ematen da.
- \* 91 zk, Foru plaza 3ko Iraeta-etxea ondoan duten almagazteko teilatua eraberritzeko obretako udal baimena ematen da.
- \* 92 zk, Ekainaren 15etik abuztuaren 15era A.A.i jornada %65 igotzea.
- \* 93 zk, Xabier Eizagirre Urangaren kontratazioa peoi lanetan aritzeko.
- \* 94 zk, Foru plaza 3ko Iraeta etxeko teilatua konpontzeko obretako udal baimena ematen da.
- \* 95 zk, Gurutzeaga kalea 3 eraikineko fatxada konpontzeko andamia, kargajasangailua eta kontainerrak jartzeko udal baimena.
- \* 96 zk, Uztapide plaza 4 3. eskubia etxeko balkoia ixteko obretako udal baimena ematen da.
- \* 97 zk, B.T.F.i behin-behineko kontratua egitea lanaldiaren %94ko portzentaiarekin.
- \* 98 zk, martxoaren 20an eta 21ean Zesareo Diaz kaleko aparkalekuak okupatzeko udal baimena ematen da.
- \* 99 zk, martxoaren 26tik 28ra Foru plaza 2an plataforma erabiltzeko udal baimena ematen da.
- \* 100 zk, ekainaren 12tik 13ra Arretxe plaza 1-2ko lanak gauzatzeko plataforma erabiltzeko udal baimena ematen da.
- \* 101 zk, martxoaren 19tik 22ra Arretxe plaza 2 atzeko errepide ondoan plataforma kokatzeko udal baimena ematen da.
- \* 102 zk, martxoaren 29an Kalekerrean plataforma erabiltzeko udal baimena ematen da.
- \* 103 zk, A.F.i Zestoako Baratze Parkeko 23 zenbakidun ortua erabiltzeko lizentzia ematen zaio.
- \* 104 zk, Arteaga auzunea 1 3ko sukaldea eta egongela berritzeko obretako udal baimena ematen da.
- \* 105 zk, E.S.Coop.enpresari, udal jabetzako baso pista eta bideen erabilera berezia egiteko lizentzia ematen zaio.
- \* 106 zk, Zestoako Udaleko 2017rako Lan Eskaintza Publikoan oinarriturik, plantila organikoan hutsik dagoen gizarte langile postua lehiaketa-oposizio bidez betetzeko beharrezko pausoak ematea.





ZESTOAKO UDALA

- \* 107 zk, gizarte langile plaza bat hornitzeko lehiaketa-oposizio librearen oinarriak.
- \* 108 zk, baztertutako ibilgailua hondakin solidotzat hartzea.
- \* 109 zk, L.A.A.A. uraren erreziboen inguruan aurkeztu dituen alegazioak ez onartzea.
- \* 110 zk, V.R.S.i, Arroa Beheko Karmenetako jaietan tiroko kaseta eta jostailuak saltzeko mahaia jartzeko udal baimena ematen zaio.
- \* 111 zk, P.F.L.Ma.ri, Arroa Beheko Karmenetako jaietan txurroak saltzeko postua jartzeko udal baimena ematen zaio.
- \* 112 zk, E.E.Z.enpresari Zestoako herri bideak desbrozadorekin garbitzeko esleipena eten zaio.

**Galdera eta erreguak.** Ez da egon

Zestoan, 2018ko azaroaren 23an  
Idazkaria,

O.e

Alkateak,